

1.3.- ZENBAIT ESPEZIE

Lehen hominidotik gaur egungo gizakira arte hainbat espezie izan dira. Hauek dira garrantzitsuenak:

- ***Australopithecus (hegoaldeko tximinoa)***. Duela 5 milioi urte inguru agertu zen Afrikan. Gure lehen arbasoa da. Lehen bipedoa izan zen, hau da, bi oinen gainean ibiltzen zen. Makilak eta harriak erabiltzen zituen (zuhaitzetako fruituak hartzeko, hezurak apurtzeko...) baina ez zekien lanabesik egiten.
- ***Homo habilis (gizaki trebea)***. Duela 2,5 milioi urte agertu zen Afrikan. Lanabesak fabrikatu zituen lehen espeziea da. Harri puska bat hartu eta beste harri batekin jotzen zuen, ertza zorroztu arte. Harri zorroztu hori labana gisa erabiltzen zuen.
- ***Homo erectus (zutik ibiltzen den gizakia)***. Duela 1,5 milioi urte Asian zabaldu zen. Afrikatik kanpo bizi izan zen lehen giza espeziea izan zen. Oso aurkikuntza garrantzitsua egin zuen: **sua**.
- ***Homo antecesor (gizaki esploratzailea)***. Duela 1 milioi urte agertu zen Europan. Atapuercako(Burgos) gizakia da, *neanderthalen* arbaso zuzena.
- ***Neanderthal (Neander haranako gizakia)***. Duela 200.000 urte inguru agertu zen Europan. Gure antza zuten, baina sendagoa zen. Hildakoak lurperatzen lehenak izan ziren.

Homo sapiens (gizaki jakintsua). Duela 130.000 urte inguru Afrikan sortu zen. Handik kontinente guztietara hedatu zen. Hizkuntza garatu zuen eta artea asmatu zuen. Gure espeziea da.